

Iñaki Barrena

EKOLOGISTAK MARTXAN-EKO KIDEA

Zornotzatik Muskizera

N

IMBY. Ipar Amerikako soziologoek akronimo hau asmatu zuten –“Not in my back yard/Ez nire atzeko baratzean”– ingurumenaren eta osasunaren aldeko tokiko protestei prestigioa kentzeko eta egoismoaren leloarekin nahasteko. Antza, gure zibilizazio industrialaren instalakuntza arriskutsuak, errauskailuak, zentral nuklear eta termikoak edo petrolioaren birfindegia toki batzuei dagozkien eta ez beste batzuei. Ekologistek beste bi siglekin erantzun zuten: “Locally unwanted land use” (LULU) eta “Not in planet Earth” (NOPE). Hots, lur erabilera hori ez dela onartzen komunitatean, ez hemen eta ez inon. Ama lur osoan ez. Gurean ere, maiz –Zornotzan, Muskizen, Itoitzen, Erandion eta Txingudin–, auzotarrei egoista eta solidaritate bako deitu zaie, instalakuntza arriskutsuak ezartzeari ezetz esan diotelako.

ENERGIA. Ia 40 urte dira Petronorrek birfindegia Bizkaiko Barbadun ibaia-
ren paduratan ezarri zuela. Ezkerraldeak eta Meatzaldeak duten hondartza bakarraren ondo- ondoan, Kantauri itsasoan dagoen petrolioari loturiko instalakuntza energetiko handiena kokatu zen eta egun Muskizko herriari beste sakrifizio bat gehiago eskatzen zaio, koke planta bat birfin-



DANI BLANCO

degi barruan onartzea, petrolioaren hondakinak erregai bihurtzeko. Bestela Petronor pikutara doala diote eta 6.000 langile ditu Euskal Herrian zerga gehien ordaintzen duen enpresak. Agian horregatik Amatiño, *negazionisten* aldera pasatu berri da eta petrolio betirako dela esaten digu, ez egiteko kasu handirik ekologista eskandalugarriei, beti berri txarrekin omen dabiltzala.

BOTEREA. Zornotzan zentral termikoaren proiektuak ez zuen oniritzi politikorik lortu, Iberdrola eta Repsol, Petronorren jabeak hain zuzen, proiektuaren parte izan arte, Bizkaia Energia bezero bihurtu arte. Josu Jon Imazek beste kokapen bat topatzeko esan zien, Zornotzan ez zutela lekurik, baina azkenean botere ekonomikoak politikoari aurre hartu zion. Muskizen, istorioa errepikatu da. Botere ekonomikoaren presioak politikariak izutu ditu eta alkateak berak bere borondatearen aurka jo du, koke plantaren baimena eman da. Ez zen beharrik. Petronor eta Repsol izugarritzko botereaz jantzi-ta, aspalditik dabilta legez kanpo, beste enpresei exijitzen zaizkien baimenak eta arauak bete gabe. Eta? San Mameseko lehoien kamisetetan jarri dute izena eta horrek dena barkatzen omen die. ■

«
Amatiño, *negazionisten* aldera
pasatu berri da eta petrolio
betirako dela esaten digu,
ez egiteko kasu handirik
ekologista eskandalugarriei
»

TXANDAN

Igor Estankona

Zura



Ilargi handi, *zauri zarae*
lan fina, zaindua,
luxuzkoa izan zen, eta
harriturik utzi gin-
tuen, Garcia Lorcaen figurara hurreratu

gintuen, baina Lauaxeta, Nikolas Lekuona, Gandiaga, pintura, gitarra, ahotsa, artea... dena zetorren batera, Kordobatik ibiltzea bezalakoa izan zen, ikutu flamenkoekin. Eta jazzarekin. Are hip-hoparekin. Ikuskizunak ez ziren kontzertuak, edo oinarrian soilik ziren kontzertuak, hori baino askoz zabalagoa zelako Zurakoen emanaldi bat.

Orain dela hiru-lau bariku Elorrion eman zuten kontzertua nahiko klasikoa izan zen, baina berri-
tsuak eurretako batzuk.

leak izaten jarraitzen dute: bosanova kiribil batean sarturik dabil azken aldian Zura, abesti gozoak dira denak, ia azukre-

Rio de Janeirotik ibiltzea bezalakoa, desafinatzea naturala den tabernetatik.

Saudadea sentitzen da. Eta alaitasuna, biak batera.

Bestalde, haziz eta haziz doazen eta inork inoiz bukatzerik nahi ez duen abesti klase hori ere lantzen dute: kiribilak dira, bukleak, espiralak, adarretan, haginetan, atzazaletan, landareetan eta itsas karakol amaigabeetan. Dena egiten da jaio, hil eta berriro jaio Zura entzuketan. ■